



Zarauzko Udala

Hezkuntza Departamentua

Zarauzko udalerriko ikastetxeei senidetze eta elkartrukeko 2024ko dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK:

- Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE) eta horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE).
- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 15ekoa, 72zk.
- Zarauzko udalerriko ikastetxeei programa osagarriak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 15ekoa, 72 zk.).
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (BOE 236 zk., 2015eko urriaren 2koa).

2024. URTEAN HEZKUNTZAKO DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Onuradunak
4. Prozedura
5. Gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak
6. Onuradunen betebeharrak



7. Zuzkidura eta aurrekontuko partida
8. Ebazpena: Organo eskudunak eta jakinarazpen-epea.
9. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea
10. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak
11. Publizitatea
12. Dirulaguntza itzultzea
13. Dirua itzultzera behartuak
14. Araudi osagarria
15. Errekurtsoak

1. HELBURUA

Helburua da dirulaguntza hauek eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzok norgehiagoka ikastetxeek **elkartruketo eta senidetzeko** jarduerak egiteko izango dira, eta beren proiektzio eta interesagatik bat etorriko dira Zarauzko Udaleko **Hezkuntza Departamentuarekin**.

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.

2. ESKAERAK

Dirulaguntza horiek Zarauzko udalerriko ikastetxeek eskatu ahal izango dituzte,

Hezkuntzako **E-02 inprimakia**) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko da deialdian ezarritako epean.

Eskaerak Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez egingo dira.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskabidearekin batera, oinarri hauen amaieran adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak:

Dirulaguntza horiek **Zarauzko ikastetxeek** eskatu ahal izango dituzte.

Dirulaguntzen onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:



- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

4. PROZEDURA

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira, eta emateko prozedura Zarauzko Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

5. GEHIENEZKO KONTZEPTUAK ETA ZENBATEKOAK

Trukeak hiri senidetuetako elkarteekin:

Zarauzko elkarteak hiri senidetuak bisitatzeko:

Kontzeptu hauek ondorengo kopuruekin lagunduko dira:

- Hiri senideturaino egindako joan-etorrien gastuen % 50.
- Hiri senidetuak egingo diren kultura-jardueretatik -museoetako sarrerak, etab.- sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultura-jarduera horiek egin direla egiaztatzen duten gastuaren frogagiriak aurkezten direnean onartuko eta ordainduko da.

Hiri senidetuetako elkarteak Zarautz bisitatzeko:

Kultur trukea egiten duen hiri senidetuak Zarauzko elkarteari sortutako gastuen % 50eraino lagunduko dira diruz, aurrez gastu horiek egiaztatzen dituen gastuaren frogagiriak aurkezten badira eta 300 euroko mugaraino.



Trukeak senidetu gabeko udalerrietako elkarteekin:

Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu ondorengo kantitateak kontzeptu hauengatik:

- Xedeko udalerrirainoko joan-etorrien gastuen %50 (900 euroko mugaraino).
- Senidetu gabeko hirian egingo diren kultur jardueretatik – museoetako sarrerak, etab. – sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultur jarduera horiek egin direla egiaztatzen duten gastu-frogagiriak aurkezten direnean onartuko da.

ESPRESUKI dirulaguntza mota horren EMAKIDATIK KANPO utziko dira ostatu- eta mantenu-gastuak, izan ere, senidetzeen filosofiaren arabera, bidaiatzen duten elkarteko kideek hiri senidetuako elkarteko kideen etxeetan hartuko dute ostatu.

6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntza jasotzen den kultur jarduna burutzea.
2. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Zarauzko Udalarekikoak egunean dituztela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalari honek bere aldetik erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.

Horretarako, ez da beharrezkoa izango interesdunaren adostasuna, eta administrazioak, bere eskumenak baliatuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu datuen zehaztasuna egiaztatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak kontsultatu eta biltzeko.

3. Hizkuntzari buruzko baldintzak

Diruz lagundutako jarduera guztietan euskararen erabilera bermatuko da. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, liburuxkak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika, etab.) euskaraz egingo dira gutxienez, eta, ele bitan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta jakinaraziko da.

Haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jarduera guztiak euskaraz bakarrik egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da eremu guztietan, hedapenean eta jardueraren garapenean.

Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusiko du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzean, bileretan, hitzaldietan, ekitaldi publikoetan, idatzizko komunikazioetan (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra), megafonian, web-orrian, WhatsApp-taldean...



Dirulaguntza justifikatzeko txostena, ahal dela, euskaraz egingo da, hargatik eragotzi gabe interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea.

4. Bereziki bete beharko du:

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasua sustatzeko udal araudiaren arabera ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- a) Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.
 - b) Sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez egitea, kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere.
 - c) Zigor administratibo edo penalik ezarrita eta indarrean ez izatea, sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik.
 - d) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
 - e) Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - f) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.
5. 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

7. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 8.000,00 eurokoa da, aurrekontuko 0801.481.03.323.00 2024 partidari egoztekoa.



Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Aldi baten amaieran dagozkion dirulaguntzak eman badira eta eman beharreko gehieneko zenbatekoa agortu ez bada, aplikatu ez den kopurua ondorengo ebazpenetara eraman ahal izango da.

8. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Hezkuntza Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritz.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

9. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntza eman den urtean bertan burutu behar da proiektua, eta justifikazioa aurkezteko azken eguna 2025eko urtarrilaren 31a izango da.

Udaleko Ordenantza Orokorren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion gastu guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den dirulaguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako dirulaguntza.



Dirulaguntzaren erabilera 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen justifikatuko da. Eta dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko ondorengoak aurkeztuko dira:

1. Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jardueramemoria** bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

JARDUERA, PROGRAMA EDO PROIEKTUAREN IZENA

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

- a) Burutako jardueren zehaztapena: datak, jarduerak, tokiak...
 - Diruz lagundutako jardueren deskribapen zehatza eta edukia.
 - Lortutako helburuak
 - Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza.
 - Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentajetan)
 - Emaitzen ebaluazioa
 - Beste alderdi batzuk

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jardueramemoria aurkeztuko da.

- b) Hala badagokio, **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea. Hizkuntza ofizialen benetako erabilera justifikatzea, dagokion inprimakiaren bidez. (E-05)
 - c) Hala badagokio, **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - d) Hala badagokio, **Ingurumenari buruzko Udal Araudiari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - e) Hala badagokio, **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - f) Diruz lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafikoak eta idatziak: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea...
2. **Memoria ekonomiko** bat , egindako jardueren kostua justifikatzeko; hauek bilduko ditu (**erabili E-04 inprimaki-eredua**):
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira. (E-04 inprimakia)



- b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko froga-balioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien **erantzukizunpeko adierazpena**, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua erabiliz gero, aldez aurretik ezarri ahalko da justifikaziorik behar izango ez duen goren muga (portzentajea) edota kopurua. Goren muga edota kopuru zehatza, bere kasuan, Hezkuntza Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

- 3. Oinarri hauetan zehazten diren **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudian** ezarritako betebeharrak bete direla zehazten duen zinpeko aitortpena. Horretarako E-05 inprimaki-eredua bete behar da.

10. DIRULAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen abonua Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunei erreparatuta, zenbatekoaren %70 dirulaguntza ebazten denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, aurrez behar bezala justifikatutako eskaera eginda. Nolanahi ere, azken zatiaren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

11. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioen edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo bi hizkuntzetan. Bi hizkuntzetan eginez gero, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoa edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen berri eman beharko dute, zenbatekoa eta helburua edo xedea adierazita, gardentasunari, informazio publikoa



eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:

- Erakunde pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
- Interes sozial edo kultureko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienen jatorri den administrazio publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.

12. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako betebeharekoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Zarauzko Udalak dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango du eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:
 - a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratzeko hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatu.
 - b. Dirulaguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
 - c. Jasotako dirulaguntza zurrizteko beharkizuna ez betetzea edo behar bezalako zurriztea ez aurkeztea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzailuetan.
 - d. Dirulaguntza emateko ebazpenean xedatzen diren hedapen bitartekoak jartzeko beharkizuna ez betetzea.
 - e. Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jarduerari aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benekotasuna eta erregulartasuna, edo beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.



- f. Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea, edota haiek, dirulaguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, dirulaguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota jokabidea aintzat hartzeko moduari dagokionean edo eragiten dionean.
2. Emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional edo nazioartekoan dirulaguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emate ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru kopurua.

Bi herri erakunderen edo gehiagoren dirulaguntza emanak direnean, eta paragrafo honetan aipatzen duen soberakina gertatzen denean, ebazpena aldatzea edo, beharrezkoa bada, dirua itzultzea gauzatu da bakoitzak emandako kopuruaren arabera hainbanaketa eginda.
3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

13. DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.
2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.
3. Halaber, jardueri utzitako pertsona juridikoen lege ordezkariak dutenak, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

14. ARAUDI OSAGARRIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko EAO); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko EAO); eta Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

15. ERREKURTSOAK

Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.



Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze ko hautazko errekurtsioa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze koaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.